



GARAI GAIZTOETAKO IDAZLE EUSKAL.,,D Mt

Gaur egun edozeñek idazten eta argitaratzen ditu euskal liburuak, Euskera bei emankorra gertatu danean; baña, izan ziran egun orretarako gaiztoak ere, beia antzutu eta arerio txarrak zituenean. Ordu aietan ez zan batere erreza euskal liburuak ateratzea. Orrelako bat daukat emen, neure aurrean eta onela dio bere ate-buruan:

GURUTZEAREN OÑETAN (Eleiz liburua eta Nekaidi-eg qarteak)

Ona zer dion bere sarreran: "Zori txarrez, Bizkaiko euzkeraz, aspaldion ez da ezer argitaratu. Utsune au betetzeko asmoagaz, idaztiño barri au eskurazten dautsut gaur...

Gazte ta zar, Bizkaiko euzkeldun guztiak ulertu leikien euzkerea erabiltzeko alegiñak egin dodaz. Euzkaltzale jakitunak utsune asko idoroko daustez. Asketsi, arren.

Itz barririk ez darabiltz; itzai baño joskereari ardura eta garrantzi geiago damotsot. Ibaizabal'etik Ondarroa'ko itxas-ertzeraiño euzkeldun guztiak neure euzkera au ulertuko balebe, neure naia beterik legoke".

Orrelako euskera erreza darabil Pasionistar egillle onek. 1950'garren urtean argitaratu zuten Deustu'ko Aita Pasioniste'k. Liburuak bi zati ditu: Eleiz-librúa da lenengo zatia eta bigarrena 31 gogartek osatzen dute. Illebetean Nekaldia gogoan artzeko. Egilleak A. Ninbe izenakin izkutatzendu bere nortasuna. Nik ez det izen orrekin Pasionistarik ezagutu eta, alaz ere, nik emen dedan ale onetan, onela dio: "Arrinda'tar Anes, Deba'ko txanburu jator eta nere lagun maiteari biotzetikan EN" edo AN. Gerratean ezagutu nituen batzuk eta Zenarruzabeitia batek, Somosierra'ko frentetik, auntzen konpittak bialdu zizkidan opari. Orrelako lagun maite batek liburua eskeiñi eta gogoratu ezin; au dek au zaartzaroaren auleria!

Gotzaitegiko baimenak dionez: Inprimatur: Vitoriae, die 28-VIII-1950. Aiek ziran euskeraz idazteko garai latzak, aiek. Egille onen Euskera bezela, beste askorena ere, erreza, jatorra, garbia eta danok bat eginda gebiltzan. Giroak erreztu diranean, izkera ura baztertu, zaildu eta goitik-beera naaspillatu.

BZI

Orixe da beste orrelako liburu baten izena. VIVRE deritzan frantsez liburu

bat agertu zan gure artean, gerrateko trumoiak jo aurretik. Belgika'tik zetorren, Averbode'ren eskutik. Urtea 1935. Irigoien'dar Txomin Zumarraga'ko elizaren buru 1941'garren urtean aukeratu zuten. Oiartzuarra eta D. Manuel Lekuona'ren eskolakoa, idazle jaio, errez eta jatorra, Seminarioko Kardaberaz bazkunean saiatur. Onek itzuli zuen euskerara Frantzia'n ateratako M.M. ARAMI jaunaren 245 orrialdeko liburua.

Geure anai-arteke guda amaitu eta laister agertu zan Txomin'en BIZI izeneko lana. Berak itzuli, berak argitaratu, berak ordaindu eta berak zabaldu. Ori da euskeraren alde lan egitea, ori. Euskera irtetzen zitzaion barru-barrutik, begi garden eta emankor batetik bezela.

KRISTOREN ANTZ-BIDEA

Ba zan aurretik beste orrelako liburu bat, KRISTOREN IMITAZIONEA zeri-tzana, ura ere, au bezela, Kempis'en itzuli bat. "Apaiz batek euskeratua dio" liburuak bere azalean. Apaiz ori Larrañaga'tar Eladi lazkaotarra da. Euskera amaren bularretik ikasia, Gazteiz' ko Seminarioan, Kardaberaz bazkunean, saiatur au ere. Don Manuel Lekuona'ren eskolakoa. 1953'garren urteko Iraillaren 24'ean eman zioten Donostia'ko baimena, liburua argitaratzeko. Itzuli, argitaratu, ordaindu eta zabaldu, orra zenbat lan mugan beste aldetik eratuak. Gure gerratearen asieran joan zitzaigun Eladi beste aldera eta andik ibilli zaigu. Dax'ko Seminarioan, apaiz-lanetan. Euskera erreza, errikoa, garbia eta jatorra.

URTE GUZIKO MEZA-BEZPERAK

"Orixe"ren lana. Garikoitz'tar Laguntzailleak. Ascain (France. B-P) da Argitaldaria. Dax'en eman zioten argiratzeko baimena: Inprimatur. Aquis, 4 Martil 1949. CLEMENS Episcopus Aturiensis. Milla ta lareun orrialdetik gorako liburua. Lan izugarria. Orixe'ren euskea sakona eta indartsua ezagutzen degu eta liburu au euskaldunen eskuetan ikusten genduen Meza latinez ematen zanean; baña, idazketa aldatuta gero, euskeraz Mezak ematen asi giñanean, orduan baztatu zan liburu eder-eder ori. Garaiak ziran alakoak eta zenbat neke, bai egiteko, bai argitaratzeko, bai ordaintzeko eta bai zabaltzeko... Donosti'ko Garibai kaleko 20'garren zenbakian bizi zan Mari Barriola Irigoyen'eri galdetu bear... Erririk erri liburu saltzen, gratis et amore. Ori bait zala euskeraren alde ondo eta garbi jokatzea. Euskera bizirik iraun arazteko alaxe jokatatu bear.

JESUKRISTOREN BIZITZA

Ikusi dezagun liburuaren Itz-aurrean zer dion egilleak:

"Jesukristoren Bizitza euskeraz jartzia, aspaldiko ametsa nuen. Oraindik mutil gaztea, Comillas'en nitzala, lan ori beste lagun betekin. Markiegi'tar (G.B.) ekin nion. Baña, gure orduko lantxo aiek, umien jolasekoak bezela, aizeak eraman zitun.

Urtez gero Iraizoz'ko Polikarpo Kaputxinoa'k eta Oyarzabal apaizak idatzitako Gure Jaunaren Bizitzak biak eskuratu zitzaizkidan. Arrezkero sarritan erabilli izan ditut, eta pozik irakurtzen aritu izan naiz: biak oso ederki bai daude... eta nere asmoari laga nion.

Oraintxe iru urte Otoitz Bidea argitaratu nuen. Ori irakurri zuten batzuk jardun da jardun egin zidaten, aren antzera, Jesus'en bizitzako liburutxo bat ateratzeko, euskera arrexean, guztiak aditzeko eran... Or dezu nere lantxo au...

gure Euskalerriko gizon eta emakume onentzat egin det, besterik ezean au beintzat orakurri dezaten...".

Markjegi'tar bat aitatzan du, baña izenik ez digu esaten. Bi anai apaiz ziran, Jose nagusia, Mondrago'ko apaizekin fusilatua eta Peli gazteagoa Bahía Blanca'ko desterruan illa. Markiegi'ren etxean neronek ikusi ditut talde baten lantxoak: bederatzj'koa zala, usten det telde ori, Nemesio Etxaniz ere an ze-goen. Aien jokaera Comillas'en, gurea Gazteiziko Seminarioaren antzekoa zan: Lantxo bat egin bakoitzak euskeraz eta danon artean zirikatu eta aztertu. Badirudi Jesukristoren Bizitzaren egj'ilea Manzisidor Aita, Lagundikoa, ere tar-tekoa zala. Onen liburua 1953'garren urtekoa da; El Mensajero, Bjlbon aterea.

Bi Jesus'en bizitza a;tatzen ditu: bata Aita Iraizoz'ena eta beste Oiartzabal'-dar Martiñena. Bjak gerra aurrekoak; giro ona zaneko garaikoak. Oiartzabal'eri 1935'garrenean eman zioten liburua argitaratzeko baimena.

GOLDAKETAN

Zaitegi'tar Jokin'ek Mexico'n 1946'garren urtean agertua. Bolibar irarkolan atera zun "Pizkunde" Argitaldarjak. Bere olerkiak ditu eta bertan dakar V Olerki Jaietan eman zioten zj'llarrezko Aritza. Tori Nere Edontzia.

Alde guztietan, era guztietako langilleak zitun laguntzaille Euskereak, are-riak zituen bezela.

Aintza tokietako baztar guztietan, ixilik, illunpean eta nekez lan egin zuten guztiei. Aintza ta oorea merezi dute gure aldetik, lenago izan ez zutena.

Anes Lazkaoko

BIZKAIA 'N ENTZUNDAKO ESALDIAK

- Aldian aldikoa.
- Atan be. Esaterako: Jo egin eban, buruan atan be.
- Atakotzat. Esaterako: bazkaldu dozu? Atakotzat.
- Txarka be. Esaterako: Orain zarrak gara, baña txarka be, bizi gara.
- iñongo erru barik.
- Gizona otzarapean be gizon.
- Ez dagoan lekuan eskua garbi, dagoan lekuan begia argi.
- Aurrez-aurre. Gizon bat aurkitu neban bidean aurrez-aurre.
- Zelako umeak alako gizonak.
- Itzal = aundia. Gose itzala neban egun aretan. Poz itzala artu neban.
- Egundo poza artu eben umeak ama ikustean.
- Geroen geroa. Esaldi oneik geroen gerorako idatzita geratzen dira.
- Txarra baiño txarragoa. Esterako: Gaur egualdi txarral Txarra baiño...
- Urtea egiten dauanean. Esaterako: artaziak galdu dira. Urtea egiten...